



Extranet ANIMSA – Gida Azkarra

Sarbidea

ANIMSAren webgunearen bidez: <http://www.animsa.es/EU/juntageneral/> atalera joaz.

Orrialde horrek identifikazioa eskatzen du erabiltzaile eta pasahitzaren bidez. Saioa hasteko, klik egin daiteke “**Saioa hasi**” aukeran, orriaren goialdean, eskuinaldean.

Webguneak erabiltzaile-izena eta pasahitza eskatuko dizkizu, eta horiek aldeztatik eman beharko zaizkizu.

Oharra: Ezin bazara webgunera sartu, baliteke erabiltzaile-izenari domeinua erantsi behar izatea, eta, beraz, “usuario@animsa.uine” idatzi beharko duzu, erabiltzaile-izena soilik idatzi beharrean.

Saioa behin hasita, erabiltzaileak eskuragarri dituen kudeaketa-organoen informazioa ikusten da.

Pasahitzen kudeaketa – Berrezarri

Pasahitza ahaztu baduzu, beste bat lortzeko aukera eskaintzen da, orri nagusian horretarako dagoen atalaren bidez.

Orri horretan, erabiltzaile-izena eta helbide elektronikoa eskatzen dira. Datu horiek behar bezala bete eta gero, sistemak modu automatikoki bidaltzen du pasahitz berri bat adierazitako helbide elektronikora. Gero, hura aldatzeko aukera dago.

Pasahitzen kudeaketa – Aldaketa

Behin saioa hasita, pasahitza alda daiteke dagokion formularioa erabiliz. Kasu horretan, oraingo pasahitza eta berria (2 aldiz) eskatzen dira. Pasahitz berriak pasahitzen politika bete behar du.

Pasahitzen politika:

Pasahitzak honako baldintza hauek bete behar ditu:

- Gutxienezko luzera: 8 karaktere
- Gutxienez letra larri bat
- Gutxienez letra xehe bat
- Gutxienez zenbaki bat
- Ezin da izan erabilgaitako azken 24 pasahitzen berdina.

Iruña, 2017ko apirilak